

## HBSP PROGRAMA

Aniztasunari eta ikasleen beharrei erantzun nahian, 1. zikloan HBSP programan parte hartzea eskatu dugu. Ikasleak: Lehenengo eta bigarren mailan matrikulatuta dauden 18 ikaslek jasoko dute laguntza programa hau jarraituz ikasturte honetan zehar. Era askotako arrazoiak direla medio: atzerapen akademiko nabaria, zailtasun kognitiboak, familia giro larria, autoestima baxua... ikasketa prozesuan aurrera egiteko mugak dituzten ikasleak dira.

Laguntza Gelako ikasleak izandakoak dira gehienak, LHn edo DBHn mailaren bat errepikatu dutenak. Programako ikasleak bere talde arruntetan egongo dira eta arlo instrumentalak dituztenean, batez ere, bi irakasle egongo dira gelan, arloa irakasten duen irakaslea eta PTE irakaslea.

Helburuak:

Ikasketa mailari dagokionez:

- Porrot akademikoa saihestea.
- Oinarrizko trebeziak eta ezagutzak eskuratzea.
- DBHko Lehen Zikloa gainditzeko bidea erraztea.

Arlo pertsonalean:

- Autoestima eta motibazioa garatzea.
- Ahalegina eta zailtasunak gainditzea baloratzea.
- Ikasleen arteko harremanetan eragitea, integrazioa landuz eta harreman pertsonalak sustatu eta zainduz.

Programaren jarraipena eta koordinazioa:

- Orientazio Mintegi eta Tutore bileretan egingo da.
- Ikasturte honetarako erronka izango da ikasturtean zehar programa honen garapena eta etorkizuna aztertzea eta baloratzea:
  - Alde batetik, ikastetxean diagnostikatzen diren beharrei erantzuteko tresna baliotsu eta erabilgarria den ikusteko.
  - Eta bestetik, datorren ikasturteari begira, ikastetxean Curriculum Anitzeko Programa eskatu ala ez erabakitzeko.